# Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa

# Oinarriak

# - 2020. urtea -

Energiaren Euskal Erakundea
Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua
48011 Bilbo
Tel.: 94 403 56 00

# Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa

## 1 <u>Programaren xedea. deskribapena eta diru laguntzen ezaugarriak</u>

**1.1.** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Eusko Jaurlaritzaren energia politikaren alorrean ezarritako helburuekin bat etorriz, 2030eko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2030) dokumentuan zehazten denez, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzen laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten.

Horiek horrela, biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko diru laguntza programa honen (aurrerantzean "**laguntza programa**") helburu nagusia da energia berriztagarrien erabilera areagotzea Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean "**EAE**") kokatutako eraikin eta instalazioetan.

Laguntzen programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **milioi bat (1.000.000) eurokoa** da; betiere, horretarako Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean "**EEE"**) aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

**1.2.** Dirulaguntza orokorrez dihარduen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluaren arabera (aurrerantzean "**LGS**"), 2020ko urtarrilaren 3an egindako bileran, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean "EEE") Zuzendaritza Kontseiluak erabaki zuen, besteak beste, 2020ko EEEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

**1.3.** Laguntza programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira. Diru laguntzen programaren deialdi honek badu aurrekontu-kreditu nahikoa EEEren aurrekontuetan, 2020ko ekitaldirako.

**1.4.** Laguntza programa hau eta bere aplikazioaren ondorioz ematen diren diru laguntzak bateragarriak diren barne-merkatuarekin, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikuluaren 3. atalean xedatzen denari jarraiki, Itun horren 108. artikuluan adierazten den batzordeari jakinarazi beharretik salbuetsita egonik.

Estatuaren diru laguntza politiken oinarrizko lanabesa da Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, Europar Batzordeak barne-merkatuarekin bateragarriak diren ustezko diru laguntzak identifikatzen dituen neurrian, aldez aurretik baimena eman beharrik gabe. Era horretan, ustezko diru laguntza horien legezkotasuna soil-soilik Erregelamenduaren eskakizun materialak betetzearen eta izapide edo tramite formal batzuk aurrera eramatearen menpe dago. Salbuespen edo Exentzio Erregelamenduak, 2014ko uztailaren 1etik aurrera indarrean dagoenak, jakinarazpen salbuespena xedatzen du hamahiru diru laguntza kategoriarako; gainera, horietako bakoitza baimendutako erregimen kopuru handi batean azpizatitu edo banatzen da. Salbuespen edo Exentzio Erregelamenduak eskualde edo erkidego mailako helburua duten diru laguntzak babesten ditu, enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntzak, ETEak finantzaketara iristeko laguntzak, ikerkuntza, garapen eta berrikuntzaren aldeko laguntzak.

Laguntza programa honetan aurreikusten diren diru laguntzak, izaera orokorrarekin, Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko UE 651/2014 Araudiaren barruan daude (aurrerantzean **651/2014 Erregelamendua**), zenbait diru laguntza mota barne-merkatuarekin bateragarriak jotzen dituena, Itunaren (DOUE 2014 L 187) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, eta bereziki, jarraian aipatzen diren artikulu hauen arabera:

**41. artikulua:** "*Iturri berriztagarrietatik datorren energia sustatzeko inbertsioei diru laguntzak*".

**46. artikulua:** "*Energia aldetik eraginkorrak diren hiri berokuntza eta hozte sistemak bultzatzeko inbertsioei diru laguntzak*" (district heating-cooling).

**1.5.** Laguntza programa honen arabera, 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinaren 1, eta 2. artikuluetan xedatzen denez, enpresatzat hauxe hartuko da:

*"Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein entitate enpresa kontsideratuko da, bere forma juridikoa edozein izanda ere (merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak emateko edozein jarduera dela ulertuta). Bereziki, enpresatzat hartuko dira, gizabanako edo familia bezala, eskuz egindako edo beste edozein jarduera gauzatzen duten entitateak; erregularki jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsonen elkarteak eta asoziazioak ere enpresatzat hartuko dira."*

Enpresa txiki-txikien, txikien eta ertainen kategoriaren (ETE) barruan izateko, enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte: 250 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gora ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gora ez izatea.

ETE kategorien arabera honako ezaugarriak dituen enpresa hartzen da enpresa txikitzat: 50 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gora ez izatea.

**1.6.** Laguntza programa honen arabera, 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinaren 3. artikuluan xedatzen denez, hauxe hartuko da kontuan:

*1. «Enpresa autonomo» bat da, baldin eta ezin bada enpresa elkartutzat hartu, 2. atalaren arabera, ezta lotutako enpresatzat ere, 3. atalaren arabera.*

*2. «Enpresa elkartuak» dira lotutako enpresatzat jo ezin diren enpresa guztiak, 3. atalaren arabera, eta horien artean honako erlazio hau dago: enpresa bakar batek (partaidetzako enpresa) dauka bera bakarrik, edo lotutako enpresa batekin edo gehiagorekin, 3. atalaren arabera, beste enpresa baten (partaidetzako enpresa) kapitalaren edo boto eskubidearen % 25 edo gehiago.*

*Aurrekoa gorabehera, enpresa batek autonomoaren kalifikazioa izan dezake, enpresa elkarturik gabe, gehieneko muga den % 25 izan edo gainditzen bada ere, baldin eta jarraian aipatzen diren inbertsio kategoriak badira, eta horien artean, banaka edo batera, eta aipatutako enpresaren artean, 3. atalean azaltzen diren erlazioak edo loturak ez badaude.*

*a) Partaidetzako sozietate publikoak, arrisku kapitalen sozietateak, pertsona fisikoak, edo arrisku kapitalean (inbertsiogile probidentzialak edo business angels delakoa) inbertsioei lotutako jardueraren bat egiten duten pertsona fisikoen taldeak eta burtsan kotizatzen ez duten enpresetan funts propioak inbertitzen dituztenak; betiere, aipatutako inbertsiogile probidentzialen inbertsioa enpresa berean 1.250.000 euro baino txikiagoa bada.*

*b) Irabazi asmorik gabeko unibertsitateak edo ikerketa zentroak.*

*c) Inbertsiogile instituzionalak, eskualde edo erkidegoen garapenerako funtsak barne.*

*d) Urtean 10 milioi euroko aurrekontua baino txikiagoa eta 5.000 biztanletik behera duten toki agintari autonomoak.*

*3. «Lotutako enpresak» izango dira, baldin eta haien artean honako erlazioren bat izaten bada:*

*a) Enpresa batek beste enpresa baten akziodunen edo bazkideen boto eskubideen gehiengoa badu.*

*b) Enpresa batek beste enpresa baten administrazio, zuzendaritza edo kontrol organoko kide gehienak izendatzeko edo kentzeko eskubidea badu.*

*c) Enpresa batek beste enpresa batean eragin nagusia edo menderatzailea ezartzeko eskubidea badu, harekin sinatutako kontratu baten ondorioz, edo bigarren enpresaren estatutu-klausularen batek eraginda.*

*d) Enpresa batek, beste enpresa baten akzioduna edo elkartua, bigarren enpresaren akziodun edo bazkideekin izenpetutako akordio baten bidez, haren akziodunen edo bazkideen boto eskubideen gehiengoa kontrolatzen badu bakarrik.*

*Eragin nagusirik ez dagoela pentsatuko da, baldin eta 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren inbertsiogileek enpresaren kudeaketan inplikazio zuzenik edo zeharkakorik ez badute, akziodunak diren aldetik, dagozkien eskubideei uko egin gabe.*

*Enpresek lehen paragrafoan aipatzen diren erlazioetako bat izanez gero, beste enpresa baten edo batzuen bitartez, edo 2. atalean azaltzen diren inbertsiogileekin, lotutako enpresatzat ere hartuko dira.*

*Era berean, lotutako enpresatzat joko dira, baldin eta aipatutako erlazioren bat badute pertsona fisiko baten bidez edo elkar hartutako pertsona fisikoen talde baten bitartez, eta enpresa horien jarduna edo zati bat erreferentzia-merkatu berean edo antzeko merkatuetan gauzatzen bada.*

*«Antzeko merkatu»tzat hauxe hartuko da: beste merkatu baten aurreko edo atzeko posizioan dagoen produktu edo zerbitzu baten merkatua.*

*4. 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuak izan ezik, enpresa bat ez da ETEtzat joko, baldin eta haren kapitalaren edo boto eskubidearen % 25 edo gehiago, zuzenean edo zeharka, banaka edo batera, erakunde publiko baten edo gehiagoren kontrolpean badaude.*

*5. Enpresek beren kalifikazioaren inguruko deklarazio bat egiteko aukera izango dute, autonomoa, elkartua edo lotutako enpresa den adieraziz; baita 2. artikuluan deskribatzen diren mugei lotutako datuez ere. Kapitalaren banaketa dela eta, zehaztasun handiz ez badago jakiterik noren esku dagoen, deklarazio hori egin dezakete. Horrela bada, fede onez edo onustez egingo du deklarazioa enpresak, presuntzio legitimoz, haren kapitalaren % 25 edo gehiago ez dela beste enpresa baten jabetzakoa, edo haien artean lotutako enpresekin batera daukala. Nolanahi ere, deklarazio horiek ez dute salbuesten Estatu edo Europa mailako araudiek ezartzen dituzten kontrolak eta egiaztapenak egitetik.*

**1.7.** Era berean, diru laguntza jasoko duten 651/2014 Erregelamenduaren barruko proiektuek erakutsi beharko dute laguntza programa honek ondorio sustatzaile edo pizgarria duela (651/2014 Erregelamenduaren 6.2 artikulua). Ondorio horietarako, diru laguntzek ondorioa sustatzailetzat hartzeko, kontuan hartu beharko dira baldintza hauek:

- Laguntza programa honi lotutako proiektua edo jarduera hasi aurretik, onuradunak diru laguntza eskaera aurkeztu badu, eta eskaera horrek, gutxienez, 651/2014 Erregelamenduaren 6.2 artikuluan xedatutako informazioa badu.

Beraz, diru laguntza eskaera egin aurretik hasitako proiektuen edo lanen eskabideak ez dira onartuko, eta proiektuen edo lanen hasieratzat joko da 651/2014 Erregelamenduaren 2.(23) artikuluaren definizioa.

## 2. Onuradunak

**2.1.** Laguntza programa honek arautzen dituen diru laguntzen onuradunak hauexek izan daitezke:

a) Izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridiko guztiak, eta etxejabeen elkarteak, baldin eta laguntza programa honetako 4. oinarrian zehazten diren jardueraren bat egiten badute EAEn.

Jabeen Elkarteen kasuan, nortasun juridikorik ez daukaten entitateak badira ere, diru laguntza programa honek ematen dituen laguntzez baliatzeko proiektuak egin ditzaketenez gero, elkarte horiek bete beharko dituzte LGSen (11.3 eta 13.2 artikuluetan) xedatutako betebeharrak; baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa ere (aurrerantzean, "**1/1997 Legegintza Dekretua**").

b) Halaber, EAEko udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, laguntza programa honetako 4. oinarri edo atalean aurreikusten diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn.

c) Merkataritza sozietateak baldin eta beren titulartasuna bere osotasunean EAEko udal batena edo batzuena dena, eta haien xede sozialak ahalbidetzen badu EAEn jardutea; beti ere laguntza programa honetako 4. atalean jasotzen diren jarduerak gauzatu nahian.

d) Energia Zerbitzu Enpresa (aurrerantzean "**ESE**") moduan diharduen edozein pertsona juridiko, baldin eta diru laguntza programa honetako 4. oinarri edo atalean aurreikusten

diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn, 2.1 atal honetan adierazten diren onuradun potentzialen kontura esklusiboki.

Energia zerbitzuen eskaintzan, dagozkien administrazio agirietan edo pleguetan eta ESEren eta bezeroaren artean sinatuko den kontratuan adierazi beharko da, hala badagokio, ESEri ematen zaion diru laguntza erabat erreperkutitu behar zaiola bezeroari, kontratua sinatzen den bezeroari, hain zuzen ere, energia zerbitzuaren prezioa murriztuz, kontratuaren indarraldiaren aldaketak eginez, edo aldez aurretik erabaki daitezkeen beste bide batzuk erabiliz. Nolanahi ere, behar besteko informazioa aurkeztu beharko da erabiltzen den modua egiaztatze aldera.

Laguntza programa honen arabera, ESEtzat hauxe hartuko da:

"*Erabiltzaile baten instalazioetan energia zerbitzuak ematen dituen pertsona juridikoa, eta hori egitean arrisku ekonomikoren bat bere gain hartzen duena; betiere, emandako zerbitzuen ordainketa, aldez edo osoa, energiaren aurrezpenaren lorpenean oinarritzen bada, energia eraginkortasuna hobetzeko edota energia berriztagarrien erabilera sustatzeko neurrien bitartez*".

**2.2.** LGSen 13. artikuluan eta 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako pertsona edo entitate hauek izan daitezke onuradunak: diru laguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta diru laguntzen deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonek edo erakundeek, onuraduna izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: LGSen 13.7 artikuluan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

**2.3.** Pertsona onuraduntzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da, diru laguntza eman aurretik zein diru laguntza emanez gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak edo ordainketak eguneratuak edukitzea, eta hala badagokio, diru laguntzak itzuli behar izateagatiko betebeharren ordainketak ere.

**2.4.** **ESE**ak ezin izango dira onuradunak izan programa honetako **4. oinarriko b), c) eta d)** ataletan aurreikusten diren jardueretatik.

**2.5.** Honako hauek ezin izango dira onuradunak izan:

a) 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.5 artikuluan eta LGSen 13.2 artikuluan adierazten diren egoeraren batean dauden eskatzaileak, baita zigortuta daudenak, administratibo edo penalki, diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.

b) Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna, abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, enpresaren helburu sozialen edo jarduketen artean, osorik edo aldez, armen ekoizpen merkaturatze eta finantzaketa bada.

c) 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikuluaren 4a) eta 4c) ataletan xedatzen denari jarraiki:

- Berreskuratzeko agindu baten zain dauden enpresak, aldez aurretik Batzordeak emandako erabakiaren ondoren, diru laguntza barne-merkatuarekin legez kanpokoa edo bateraezina adierazten duena.
- Krisian dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduaren 2. artikuluaren 18. atalaren arabera.

## 3. <u>Programaren aurrekontua eta eskabideak aurkezteko epea</u>

Laguntzen programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **milioi bat (1.000.000) eurokoa** da; betiere, horretarako Energiaren Euskal Erakundearen aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian (aurrerantzean "**EHAA**") oinarri hauek argitaratzen diren egunaren biharamuneko 08:00etan hasiko da eskabideak aurkezteko epea laguntza programa honen kontura, eta laguntza programari esleitutako diru-saila agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, 2020ko urriaren 31n izango da azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Epeak zenbatzeari begira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa beteko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena (aurrerantzean **39/2015 Legea**).

Aurrekontuaren bukaeraren edo agortzearen berri emango da EHAAn zein Interneteko EEEren helbide honetan: www.eve.eus.

Eskabideak edo eskaerak lehendik aurkeztuta egon arren, osoak eta bideratzen, eta programari urte bakoitzerako esleitutako diru saila edo aurrekontua amaitzeagatik diruz ezin bazaie lagundu, bazter egingo dira, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez. bukatu aurretik aurrekontua handitzea erabaki ezean, eta azken kasu hau gertatuz gero, bideratzen edo tramitatzen jarraituko da.

## 4. Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioak sustatzeari begirako jardueretarako diru laguntzak eta beren zenbatekoa

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren biomasaren erabileraren alorreko jarduerak oinarri hauetako 4. atalean zehazten dira. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira eta honako data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra.

**Enpresen kasuan**, oinarri hauetako 4. atalean zehazten diren jarduerak lagunduko dira diruz; onuradunek egingo dituzten jarduera horiek honako data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: laguntzen programa honetaz baliatzeko eskabidea aurkezten den egunaz geroztik 2020ko abenduaren 31ra (651/2014 Erregelamendua).

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak hauexek dira:

a) **Galdara-gela** berriak, eta bertan biomasa beroa ekoizteko (ur beroa, ur birberotua edo lurruna), eta, hala badagokio, hotza ekoizteko, ustiapen termikoa sortzeko erabiliko da.

   Energia instalazio berri horien (galdara-gelak) potentzia izendatua**70 kW-etik** (>70 kW) gorakoa izango da, eta banakakoak, zentralizatuak edo district heating-cooling motakoak izan daitezke. Jarduteko sektoreak hauexek izango dira: batetik, eraikuntzan (etxebizitzak, merkataritza, industria, etab.); eta bestetik, zerbitzu eta industria alorretako ekoizpen zentroetan.

b) **Galdara-gela** berriak, eta bertan biomasa beroa ekoizteko (ur beroa) erabiliko da.

   Energia instalazio berri horien (galdara-gelak) potentzia izendatua **10 kW-ekoa edo handiagoa izango da** (=>10 kW), **eta gehienez ere 70 kW-eraino**, eta banakako edo zentralizatu erakoak izan daitezke. Haien erabilera eremua hauexek izango dira: batetik, bizitegi sektorean (etxebizitzak); eta bestetik, zerbitzuak ematen dituzten eraikinak (administrazioaren eraikinak eta abar). Energia instalazio horietako galdaren **errendimendu izendatua %90 edo handiagoa** izan beharko da.

c) Era berean, **aire beroa** ekoizteko bero sorgailuen kasu partikularra ere kontuan hartuko da. Haien potentzia nominala **>70 kW-ekoa** izango da.

d) **Galdaren** bidez biomasa erabiltzeko egungo instalazioetan lotura edo konexio berriak, district heating-cooling konfigurazioaren arabera, beroa ekoizteko, eta aukera izanez gero, hotza ere ekoizteko; lotura berriak banakakoak edo zentralizatuak izan daitezke, eta haien erabilera eremua eraikuntzan (etxebizitzak, merkataritza, industria, etab.) zein zerbitzuak ematen dituzten eraikinetan eta industria alorretako ekoizpen zentroetan.

**e)** Erregai konbentzionaleko erregailuen ordezkapena, eta galdaren egokitzapena, biomasa-erregailuen bitartez, eta haien erabilera eremua eraikuntzan (etxebizitzak, merkataritza, industria, etab.) zein zerbitzuak ematen dituzten eraikinetan eta industria alorretako ekoizpen zentroetan. Haien instalatutako potentzia nominala **>70 kW-ekoa** izango da.

**Aplikazio eremua**

Biomasaren energia termikoaren aprobetxatzen duten sistemak, bero moduan kontsumitzeko, eta aukera izanez gero, hotza ekoizteko geroago. Ez da gehieneko mugarik jartzen instalatutako potentzia termiko izendatuari dagokionez.

Intereseko gailuak eta tresna osagarriak hauexek dira:

- Siloa - Erregaia tratatzeko eta elikatzeko sistema: instalazio termikoa (galdara…) behar bezala ibiltzeko erregaiaren prestaketa eta elikatzea.
- Galdara - Errekuntza sistema: biomasaren errekuntza bidezko beroa sortzeko bakarrik prestatuta badago, sistemaren karga erabilgarria transferituz, eta keak behar bezala kanporatzen direla bermatuz.
- Banaketa sistema: eraikinean bertan erabiltzeko, edo berokuntzarako, sistemaren hodietatik zehar, district heating-cooling eran konfiguratua, eta aukera izanez gero, hozterako; baita kontrol eta erregulazioa egiteko sistema denean ere.
- Konexio sistema: Berezkoa den berokuntzarako, eta aukera izanez gero, hozteko district heating-cooling sistemaren hodi-sare nagusitik konexioaz gainera, trukagailua eta gainerako tresna osagarriak ere kontuan hartzen dira. Hartara, kontsumo-gune berrira hornidura termiko egokia bermatuko da.
- Kontrol eta monitorizaziorako sistema. Laguntza programa honen arabera, diruz lagunduko diren instalazioen potentzia termiko izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa izango da; beraz, energia termikoaren eta elektrikoaren kontsumoak neurtzeko banakako sistema bat ezarri beharra dago, establezimendutik beste erabilera batzuetatik sor daitezkeen energia kontsumoetatik bereizi ahal izateko.

**Erreferentzia kostua eta diru laguntzaren ehunekoa, erreferentzia kostuaren aldean**

**a)** 4. oinarri honetako a) ataleko jarduerei dagokienez, erreferentzia kostua, diruz lagunduko den potentzia-unitateko gehieneko kostua izango dena, instalazioaren eskariari dagokion gehieneko potentziaren balioa dena, 500 €/kW eskari izango da, eta 800 €/kW eskari kantitateraino areagotu daiteke, district heating-coolingerako sistemak direnean, hau da, 300 €/kW eskari gehigarria aplikatuko litzateke.

Erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntzaren ehunekoa bakarra izango da, %25, hain zuzen ere.

| Kategoria | Erreferentzia kostua<br>€/kW potentzia lagungarria | Laguntzaren ehunekoa<br>/ Erreferentzia kostua<br>(%) |
|---|---|---|
| Galdara-gelak | 500etik 800eraino | %25 |

**8. oinarrian** azaltzen den bezala, "Dokumentazio teknikoa" ataletan, ezinbestekoa da proiektuaren deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoan bero, eta ahal izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziari buruzko datuak agertzea. Alde horretatik, Eraikinetan Instalazio Termikoen Araudiak (RITE 1027/2007) ezartzen dituen mugapen eta murrizketen ondorioz, IT 1.2.4.6.3. Agindu Teknikoan adierazten denez, aire zabaleko igerilekuen beroketa bero berriztagarriaz edo hondarrekoaz egin beharraz diharduena, eskari potentzia, proiektuaren arabera, kanpoko igerilekuen bero premiak asetzeko, ez da kontuan hartuko diru laguntza kalkulatzeari begira. Beraz, kalkulatutako bero eskariaren gehieneko potentzia adierazi beharko da kontuan hartu gabe kanpoko igerilekuetara zuzentzen den potentziaren ekarpena.

Berotzeko, eta ahal izanez gero hozteko potentzia izendatu edo nominalei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskari kalkuluetan lortutako balioak eta fabrikatzaileek beren gailuen fitxa teknikoen berri emateko orrietan agertzen direnak egokiak edo proportzionalak izan behar dira. Nolanahi ere, **potentzia eskariaren kalkuluetan lortzen diren balioak izango dira diru laguntzak emateko edo kalkulatzeko erabiliko direnak**; izan ere, kalkulatutako eskariaren maila ase behar izanez gero, instalatu beharreko gailu edo ekipoen datu teknikoek azalduko dituzten potentzien balioak kalkulatutakoak baino handiagoak izango dira. Alde horretatik, **ez zaio diru laguntzarik emango, inola ere,** instalatuko diren ekipoen **gaindimentsionamendu potentziari.**

Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, proiektuaren deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoan zehaztuko direnak, **8. oinarriko** "dokumentazio teknikoa" ataletan azaltzen den bezala, diru laguntzak emateko kontuan hartuko den kalkulu potentzia hauxe izango da: biomasa-galdarak egiten duen ekarpen espezifikoa, guztizko eskari potentzia ase edo betetzeari begira, azken hori proiektuan lortua eta aurreko paragrafoetan ezarritako mugak kontuan hartuta.

**b)** 4. oinarri honetako b) ataleko jarduerei dagokienez, erreferentzia kostua, diruz lagunduko den potentzia-unitateko gehieneko kostua izango dena, instalazioaren eskariari dagokion gehieneko potentziaren balioa dena, 600 €/kW eskari da.

Erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntzaren ehunekoa bakarra izango da, %25, hain zuzen ere.

| Kategoria | Erreferentzia kostua<br>€/kW potentzia lagungarria | Laguntzaren ehunekoa<br>/ Erreferentzia kostua<br>(%) |
|---|---|---|
| Galdara-gelak<br>> 10 kW-etik 70 kW-eraino | 600 | %25 |

**8. oinarrian** azaltzen den bezala, "Dokumentazio teknikoa" ataletan, ezinbestekoa da proiektuaren deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoan bero eskariaren gehieneko potentziari buruzko datuak agertzea. Alde horretatik, Eraikinetan Instalazio Termikoen Araudiak (RITE 1027/2007) ezartzen dituen mugapen eta murrizketen ondorioz, IT 1.2.4.6.3. Agindu Teknikoan adierazten denez, aire zabaleko igerilekuen beroketa bero berriztagarriaz edo hondarrekoaz egin beharraz diharduena, eskari potentzia, proiektuaren arabera, kanpoko igerilekuen bero premiak asetzeko, ez da kontuan hartuko diru laguntza kalkulatzeari begira. Beraz, kalkulatutako bero eskariaren gehieneko potentzia adierazi beharko da kontuan hartu gabe kanpoko igerilekuetara zuzentzen den potentziaren ekarpena.

Berotzeko potentzia izendatu edo nominalei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskari kalkuluetan lortutako balioak eta fabrikatzaileek beren gailuen fitxa teknikoen berri emateko orrietan agertzen direnak egokiak edo emandakoak izan behar dira. Nolanahi ere, **potentzia eskariaren kalkuluetan lortzen diren balioak izango dira diru laguntzak emateko edo kalkulatzeko erabiliko direnak**; izan ere, kalkulatutako eskariaren maila ase behar izanez gero, instalatu beharreko gailu edo ekipoen datu teknikoek azalduko dituzten potentzien balioak kalkulatutakoak baino handiagoak izango dira. Alde horretatik, **ez zaio diru laguntzarik emango, inola ere,** instalatuko diren ekipoen **gaindimentsionamendu potentziari.**

Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, proiektuaren deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoan zehaztuko direnak, **8. oinarriko** "dokumentazio teknikoa" ataletan azaltzen den bezala, diru laguntzak emateko kontuan hartuko den kalkulu potentzia hauxe izango da: biomasa-galdarak egiten duen ekarpen espezifikoa, guztizko eskari potentzia ase edo betetzeari begira, azken hori proiektuan lortua eta aurreko paragrafoetan ezarritako mugak kontuan hartuta.

**c)** 4. oinarri honetako c) ataleko jarduerei dagokienez, erreferentzia kostua, bero sortzeko instalazioak jartzeari begira, bero eskariaren gehieneko potentzia unitateko inbertsio handiena

izango dena, **100 €/kW eskari izango da, erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntza %25 izango da.**

**d)** 4. oinarri honetako d) ataleko jarduerei dagokienez, ebaluazioa erreferentzia inbertsio estandarra eran egingo da; inbertsio estandarra era honetan ebaluatuko da: **4.000 euro banakako** konexio motaren kasuan eta **60.000 euro** konexio **zentralizatua** denean. **Erreferentzia inbertsioaren aldean,** diru laguntzaren ehunekoa bakarra izango da kasu bietarako, **%25**. Beraz, **gehieneko diru laguntza 1.000 eurokoa** izango da **banakako** kasurako eta **15.000 euro zentralizatuan**.

| **Konexio mota** | **Erreferentzia inbertsioa<br>€** | **Laguntzaren ehunekoa<br>/ Erreferentzia inbertsioa<br>(%)** |
|---|---|---|
| Banakakoa | 4.000 | %25 |
| Zentralizatua | 60.000 | %25 |

**e)** 4. oinarri honetako e) ataleko jarduerei dagokienez, bero eskariaren gehieneko potentzia unitateko inbertsio handiena izango dena, **100 €/kW eskari izango da, erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntza %25 izango da.**

| **Kategoria** | **Erreferentzia kostua<br>€/kW potentzia lagungarria** | **Laguntzaren ehunekoa<br>/ Erreferentzia kostua<br>(%)** |
|---|---|---|
| Erregailuen ordezkapena<br>> 70 kW | 100 | %25 |

**8. oinarrian** azaltzen den bezala, “Dokumentazio teknikoa” ataletan, ezinbestekoa da proiektuaren deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoan bero eskariaren gehieneko potentziari buruzko datuak agertzea. Alde horretatik, Eraikinetan Instalazio Termikoen Araudiak (RITE 1027/2007) ezartzen dituen mugapen eta murrizketen ondorioz, IT 1.2.4.6.3. Agindu Teknikoan adierazten denez, aire zabaleko igerilekuen beroketa bero berriztagarriaz edo hondarrekoaz egin beharraz dihardduena, eskari potentzia, proiektuaren arabera, kanpoko igerilekuen bero premiak asetzeko, ez da kontuan hartuko diru laguntza kalkulatzeari begira. Beraz, kalkulatutako bero eskariaren gehieneko potentzia adierazi beharko da kontuan hartu gabe kanpoko igerilekuetara zuzentzen den potentziaren ekarpena.

Berotzeko potentzia izendatu edo nominalei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskari kalkuluetan lortutako balioak eta fabrikatzaileek beren gailuen fitxa teknikoen berri emateko orrietan agertzen direnak egokiak edo emandakoak izan behar dira. Nolanahi ere, **potentzia eskariaren kalkuluetan lortzen diren balioak izango dira diru laguntzak emateko edo kalkulatzeko erabiliko direnak**; izan ere, kalkulatutako eskariaren maila ase behar izanez gero, instalatu beharreko gailu edo ekipoen datu teknikoek azalduko dituzten potentzien balioak kalkulatutakoak baino handiagoak izango dira. Alde horretatik, **ez zaio diru laguntzarik emango, inola ere,** instalatuko diren ekipoen **gaindimentsionamendu potentziari.**

Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, proiektuaren deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoan zehaztuko direnak, **8. oinarriko** “dokumentazio teknikoa” ataletan azaltzen den bezala, diru laguntzak emateko kontuan hartuko den kalkulu potentzia hauxe izango da: biomasa-galdarak egiten duen ekarpen espezifikoa, proiektuan lortuko den guztizko eskari potentzia ase edo betetzeari begira.

## 5. Kostu lagungarria

### 5.1 Kostu lagungarriaren mugak

**1.-Eskatzailea enpresatzat hartzeko ez den kasuan**

Kostu lagungarritzat hauxe hartuko da: egin behar den inbertsioaren kostua, aurreikusitako energia helburuak lortzeko ezinbestekoa dena.

**2.-Eskatzailea enpresatzat hartzeko den kasuan**

- **4. Oinarrian** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpena sustatzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu lagungarriak. Kostu horiek era honetan kalkulatuko dira:
  - Energia iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, adibidez, erraz identifika daitekeen osagai erantsiren bat gaur egungo instalazio batean jartzeko, energia iturri berriztagarrietatik datorren energiari lotutako kostu horiek diruz lagunduko dira programa honen bidez.
  - Energia iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta identifikatu ahal direnean, ingurumena gutxiago errespetatzen badu ere, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena (inbertsio konbentzionala), bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du energia iturri berriztagarrietatik datorren energiari lotutako kostua, eta diruz lagunduko den kostua edo kostu lagungarria izango da.
  - Tamaina txikiko zenbait instalazioren kasuan, ingurumena gutxiago errespetatzen duen inbertsioa ezartzeko modurik ez badago, tamaina mugatua duten instalazio ezagatik, ingurumen babes maila handiagoa lortzeko egindako inbertsioaren guztizko kostuak izango dira kostu lagungarriak.

  Energia iturri berriztagarrien bidezko energia ekoizteko maila areagotzeari zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

- **4. Oinarriko a) atalean** aurreikusten diren diru laguntzei lotutako jarduerei dagokienez, bero, eta aukera izanez gero, hotza ekoizteko district heating-cooling erako sistemak egitea aurreikusten diren jardueren kasuan, kostu lagungarria era honetan kalkulatuko da:
  - Ekoizpen instalazioaren kasuan, sorkuntza unitate baten edo batzuen eraiki, handitu edo berritzeko behar diren kostu gehigarriak lagunduko dira diruz, bero, eta aukera izanez gero, hotza ekoizteko district heating-cooling erako sistema moduan erabiltzen direnak, ekoizpen instalazio konbentzional batekin konparatuta. Energia aldetik eraginkortasunez funtzionatzen duten berokuntza eta hozte ekoizteko district heating-cooling sistemaren barruan egongo dira inbertsioak.
  - Banaketa sareari dagokionez, inbertsio-kostuak izango dira kostu lagungarriak.
  - Konexio berrien kasuan, inbertsio-kostuak izango dira kostu lagungarriak, bai bero eta, aukera izanez gero, hotza ekoizteko district heating-cooling sistemaren sare nagusitik datozen hodiei dagokienez, bai trukagailu eta gainerako tresna osagarriei dagokienez.

**3.- Beste aspektu batzuk**

- Material eta esku lanari lotutako sail ekonomiko guztiak diruz lagunduko den energia instalazioari esleitu edo egotzi beharko zaizkio zuzenki.
- Proposatzen den energia sistema berriari zuzenki lotuta eta parte hartuko duten ESEko langileen euren eskulanaren kostu lagungarria, gehienez ere, proiektuaren kostu lagungarriaren %30 izango da.
- Kostu lagungarriak zerga-kenkariak edo beste zerga batzuk kontuan hartuta adieraziko dira.

### 5.2 Kostu lagungarriaren barruan sartuko ez diren jarduerak

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindu den BEZa, eta, oro har, zergak.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak, pertsonal propioari dagozkionak eta lurrak erosteko gastuak.
- Ekipo erabiliak eskuratzeko inbertsioak.
- Honako hauek erosteko inbertsioak: makineria autopropultsatua, ibilgailuak, bizikletak eta, oro har, salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko garraiobideak.
- Instalazioak eta ekipoak mantentzeko, egokitzeko eta konpontzeko inbertsioak.
- Zerbitzariak, inprimagailuak eta, oro har, ekipo ofimatiko guztiak.
- Merkatu azterketak, bideragarritasun azterketak edo azterlanak, baita edozein energia auditoria mota.
- Jarraipen, aurrerapen eta koordinazio txostenak, baita obra amaierako edo gauzatze ziurtatzekoak ere.
- Proiektuak, obra-zuzendaritza, legeztatzeko gastuak, hondakinak kentzea, koordinazioa eta segurtasun eta higieneko ekipamendua.
- Obra zibilean egindako gastutzat hartu daitekeen sail ekonomikoa, bero eta/edo hotza ekoizteko district heating-cooling erako sistemen kasuetan izan ezik.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko kostu guztiak, eta ondorioz, era zuzenean identifikatzea ezinezkoak izango direnak, laguntza programa honetako 4. oinarrian aurreikusten diren jardueren inbertsioen energia helburuak lortzeari begira.

## 6. <u>Diru laguntzei egingo zaizkien mugaketa orokorrak</u>

### 6.1 Diru laguntzen zenbatekoaren muga

Laguntzen programa honen kontura gauzatuko diren jardueretan, proiektu bakar batek edo bakoitzak jaso dezakeen gehieneko diru laguntza **laurogei mila (80.000) eurokoa** izango da, eta onuraduneko jaso daitekeen gehieneko diru laguntza **laurogei mila (80.000) eurokoa** izango da, eta ez da inola ere gainditutko proiektu mota bakoitzerako ezarritako ehunekoa, **4. oinarrian** azaltzen direnak.

Gainera, eskatzaileek enpresatzat hartzeko moduko ezaugarriak badituzte, 651/2014 Erregelamenduan ezarritakoari jarraiki, eta diru laguntza eskatzen den proiektuaren edo jardueraren arabera, aipatutako Erregelamenduaren artikulu hauetan aurreikusten dena aplikatuko da:

- *651/2014 Erregelamenduaren 41.5 artikulua – Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren sustapena*: Inbertsioari begirako diru laguntzak instalazio berriei baino ez zaizkie emango. Ez da emango eta ez da efektiborik egingo diru laguntzarik instalazioa funtzionatzen hasi ondoren.

### 6.2 Beste laguntza batzuekiko bateragarritasun erregimena

Dokumentu honetan jasotzen den xede bera izanik, beste erakunde edo elkarte publiko zein pribatu batzuek emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira oinarri hauetan ematen direnekin, baldin eta diru laguntza guztiak batera kostu lagungarriaren ehunekoa jarraian aipatzen direnak edo txikiagoak badira:

a) <u>Enpresatzat jotzen diren eskatzaileak, 651/2014 Erregelamenduaren arabera:</u>

- **4. Oinarrian** zehazten diren jarduerak aurrera eramateko, kostu lagungarriaren %45; salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %65 eta %55 izango baita, hurrenez hurren, honako ezaugarri hauek betetzen badituzte: (i) iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, adibidez, erraz

identifika daitekeen osagai erantsiren bat egungo instalazio batean jartzeko, edo (ii) iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta identifikatu ahal direnean, ingurumena gutxiago errespetatzen badu ere, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena-inbertsio konbentzionala-, bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du iturri berriztagarrietatik datorren energiari lotutako kostua (651/2014 Erregelamenduaren 41. artikulua).

- **4. Oinarrian** zehazten diren jarduerak aurrera eramateko, kostu lagungarriaren %30; salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %50 eta %40 izango baita, hurrenez hurren. Tamaina txikiko zenbait instalazioren inbertsio proiektuen kasuan, ingurumena gutxiago errespetatzen duen inbertsioa ezartzeko modurik ez badago, tamaina mugatua duten instalazio ezagatik, ingurumen babes maila handiagoa lortzeko egindako inbertsioaren guztizko kostuak izango dira kostu lagungarriak (651/2014 Erregelamenduaren 41. artikulua).
- **4. Oinarriko a) atalean** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, bero, eta aukera izanez gero, hotza ekoizteko district heating-cooling erako sistemak egitea aurreikusten diren jardueren kasuan, kostu lagungarriaren %45; salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %65 eta %55 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Erregelamenduaren 46. artikulua).

b) Eskatzaileak enpresatzat hartzeko eskakizunak betetzen ez baditu, 651/2014 Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, honako konkurrentzia-muga hauek izango ditu:

- %65 kasu guztietarako; diru laguntzen onuradunak udalak, udal elkarteak, mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak direnean izan ezik. Hauentzat konkurrentzia-muga %80 izango da (BEZik gabe).

Beste erakunde edo administrazio batzuek emandako diru laguntzak gauzatzen badira EEE Energiaren Euskal Erakundeak emandako diru laguntzaren ebazpenaren ondoren, onuradunak EEEri jakinarazi beharra du **(12. oinarria, e) atala)**, eta diru laguntza guztien azterketatik ondorioztatzen bada diru laguntzaren zenbatekoa gutxitu behar dela, aldez edo guztiz errebokatzeko dagokion ebazpen baten bidez zehaztuko da, diru laguntza ordaindu aurretik emango dena.

### 6.3 Diruz lagunduko diren jardueren kontratazioa edo azpikontratazioa hirugarrenekin

a) LGSen 29. artikuluan eta RGSen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, onuradun batek azpikontratatzen duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: diru laguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren gauzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko onuradunak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren %100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, goraxeago aipatutako 29. artikuluan xedatutakoa beteko da.

b) Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren araberakoa, Kontratazio Publikoaz dihardduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez (15.000€ zerbitzuetarako eta horniduretarako BEZik gabe eta 40.000€ obrarako BEZ gabe), onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada gauzatu, zerbitzu egin edo hornitzeko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada diru laguntza eman baino lehen (salbuespena, azken kasu honetan, 651/2014 Erregelamenduaren mende dauden enpresei begira).

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta aukeraketa espreski justifikatuta geratu beharko da, baldin eta aukeratua kalitate-prezio erlazio onena duen proposamena ez denean.

## 7. Bideratzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta **Administrazio Elektronikaz** diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean **21/2012 Dekretua**), laguntza programa honi lotutako espedienteen bideratze edo izapidetze guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak), horretarako berariaz diseinatutako aplikazio informatikoa erabili beharko da. Aplikazio hori EEEren webgunean dago eskuragarri, helbide honetan: https://gestionayudas.eve.eus/solicitud. Hori guztia, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe, pertsona fisikoen kasuan.

Diru laguntzak eskatzea edo bideratzearekin zerikusia duten edozein izapide edo dokumentu aplikazio informatika horretaz eginez gero, era elektronikoan, sinadura elektroniko aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabidea osatugabea, akatsekin egongo balitz, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete ezik, hamar (10) egun baliodunеko epea emango litzaioke interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideaz diharduen 39/2015 Legearen 21. artikuluaren arabera xedatutako ebazpena, hain zuzen ere.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko. Ondorio hauetarako, eskaeraren aurkezpen data edo eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

## 8. Diru laguntza eskatzeko helbidea

Diru laguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa **7. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez egingo da, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoen kasuan, eta **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Diru laguntzaren eskatzaileak jarduera mota bera edo desberdinak toki batean baino gehiagotan egingo balu, izaera ezberdinekoak, toki bakoitzeko eta jarduera bakoitzeko eskaera espezifiko bat egin beharko luke.

EEEk era automatikoan egiaztatuko ditu honako hauek: NANa, IFKa, zerga betebeharrak ordainduta daudela adierazten duten egiaztagiriak eta Gizarte Segurantzan ordainketak eginak dauden dokumentuak, Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkienak izan ezik. Hala ere, onuradunak espreski uko egin ahalko dio onarpen inplizito horri diru laguntza eskabidean; horrela eginez gero, kasuan kasu eskatzen zaion egiaztagiria edo dokumentua aurkeztu beharko du, 39/2015 Legaren 28. artikuluaren 2. paragrafoaren arabera.

Diru laguntza eskaera egiteko, jarduera mota bakoitzeko, aplikazio informatikoaz formalizatu eta aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

**Pertsona fisikoak**

a. **Diru laguntza eskabidea**. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko beraz, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

**b. Dokumentazio administratiboa**

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, onuradunaren NANaren kopia.
- Hala badagokio:
  - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
  - Ahalduntzeko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.

**c. Dokumentazio teknikoa**

- Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazio berriaren proiektuaz deskripziozko memoria tekniko-ekonomikoa, eta bertan proiektuaren hasiera eta amaiera egunak adieraziko da. Era berean, instalazioaren kokalekua UTM (X,Y) koordenatu sistemaren bidez adierazi beharko da.

  Ezinbestekoa da memoria horretan honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala edo kalkulua; kalkulatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Beharrezkoa da eskatzen den gehieneko bero potentzia zehaztea, eta hala badagokio, gehieneko hotz potentzia.

  Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero, eta aukera izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztu edo kalkulatuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari aurreikusten zaion ekarpen espezifikoa. Diru laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.
- Energia sortzeko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (**fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia**).
- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Proiektuaren azala edo lehen orrialdearen kopia zigilatua, instalazioaren bero, eta aukera izanez gero, hotz potentzia izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.

<u>**Autonomoak**</u>

**a. Diru laguntza eskabidea**. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko beraz, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Enpresatzat hartzeko deklarazioa, 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako.

**b. Dokumentazio administratiboa**

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, onuradunaren NANaren kopia.
- Hala badagokio:
  - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
  - Ahalduntzeko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
- Gizarte Segurantzan, autonomo moduan kotizatzen ari dela dagozkion egiaztagiri edo dokumentu ofiziala.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.
- Autonomoen kasuan, enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko modukoak badira, 651/2014 Erregelamenduaren I. Eranskinaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, horrelakotzat jotzeko behar diren dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:
  - ✓ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresak duen langile kopuruari buruzko informazioa azalduko duena.
  - ✓ Urteko negozioen bolumenaren edo urteko balantze orokorraren egiaztagiria.

**c. Dokumentazio teknikoa**

- Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazio berriaren proiektuaz deskripziozko memoria tekniko-ekonomikoa, eta bertan proiektuaren hasiera eta amaiera egunak adieraziko da. Era berean, instalazioaren kokalekua UTM (X,Y) koordenatu sistemaren bidez adierazi beharko da.

  Ezinbestekoa da memoria horretan honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala edo kalkulua; kalkulatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Beharrezkoa da eskatzen den gehieneko bero potentzia zehaztea, eta hala badagokio, gehieneko hotz potentzia.

  Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero, eta aukera izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztu edo kalkulatuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari aurreikusten zaion ekarpen espezifikoa. Diru laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

- Energia sortzeko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (**fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia**).
- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Proiektuaren lehen orrialdearen kopia zigilatua, instalazioaren bero, eta aukera izanez gero, hotz potentzia izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.

<u>Pertsona juridikoak</u>

a. **Diru laguntza eskabidea**. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen proiektu mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko beraz, deklarazio hauek formalizatuko dira:
   - Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
   - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
   - Enpresatzat hartzeko deklarazioa edo adierazpena, 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako.

b. **Dokumentazio administratiboa**
   - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
   - IFKaren kopia.
   - Ahalduntzeko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
   - Eskrituraren, estatutuen edo eratzeko ekitaldiaren kopia.
   - Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.
   - Enpresen kasuan, enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko modukoak badira, 651/2014 Erregelamenduaren I. Eranskinaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, horrelakotzat jotzeko behar diren dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:
     - ✓ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresak duen langile kopuruari buruzko informazioa azalduko duena.
     - ✓ Urteko negozioen bolumenaren edo urteko balantze orokorraren egiaztagiria.

c. **Dokumentazio teknikoa**
   - Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazio berriaren proiektuaz deskripziozko memoria tekniko-ekonomikoa, eta bertan proiektuaren hasiera eta amaiera egunak adieraziko da. Era berean, instalazioaren kokalekua UTM (X,Y) koordenatu sistemaren bidez adierazi beharko da.

Ezinbestekoa da memoria horretan honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala edo kalkulua; kalkulatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Beharrezkoa da eskatzen den gehieneko bero potentzia zehaztea, eta hala badagokio, gehieneko hotz potentzia.

Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero, eta aukera izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztu edo kalkulatuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari aurreikusten zaion ekarpen espezifikoa. Diru laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

- Energia sortzeko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (**fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia**).
- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Proiektuaren lehen orrialdearen kopia zigilatua, instalazioaren bero, eta aukera izanez gero, hotz potentzia izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.

<u>Udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak</u>

a. **Diru laguntza eskabidea**. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko beraz, deklarazio hauek formalizatuko dira:
    - Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
    - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
b. **Dokumentazio administratiboa**
    - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
    - Alkate edo kargu hautatzeko ziurtagiriaren kopia.
    - IFKaren kopia.
    - Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
    - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
    - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
    - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.
c. **Dokumentazio teknikoa**
    - Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazio berriaren proiektuaz deskripziozko memoria tekniko-ekonomikoa, eta bertan proiektuaren hasiera eta amaiera egunak

adieraziko da. Era berean, instalazioaren kokalekua UTM (X,Y) koordenatu sistemaren bidez adierazi beharko da.

Ezinbestekoa da memoria horretan honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala edo kalkulua; kalkulatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Beharrezkoa da eskatzen den gehieneko bero potentzia zehaztea, eta hala badagokio, gehieneko hotz potentzia.

Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero, eta aukera izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztu edo kalkulatuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari aurreikusten zaion ekarpen espezifikoa. Diru laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

- Energia sortzeko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (**fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia**).
- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Proiektuaren lehen orrialdearen kopia zigilatua, instalazioaren bero, eta aukera izanez gero, hotz potentzia izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.

<u>Etxejabeen elkarteak</u>

a. **Diru laguntza eskabidea**. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen proiektu mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko beraz, deklarazio hauek formalizatuko dira:
   - Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
   - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa**
   - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
   - IFKaren kopia.
   - Elkarteko presidente hautatzeko aktaren kopia.
   - Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.

c. **Dokumentazio teknikoa**

- Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazio berriaren proiektuaz deskripziozko memoria tekniko-ekonomikoa, eta bertan proiektuaren hasiera eta amaiera egunak adieraziko da. Era berean, instalazioaren kokalekua UTM (X,Y) koordenatu sistemaren bidez adierazi beharko da.

  Ezinbestekoa da memoria horretan honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala edo kalkulua; kalkulatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Beharrezkoa da eskatzen den gehieneko bero potentzia zehaztea, eta hala badagokio, gehieneko hotz potentzia.

  Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero, eta aukera izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztu edo kalkulatuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari aurreikusten zaion ekarpen espezifikoa. Diru laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

- Energia sortzeko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (**fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia**).
- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Proiektuaren lehen orrialdearen kopia zigilatua, instalazioaren bero, eta aukera izanez gero, hotz potentzia izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.

<u>Energia Zerbitzu Enpresa – ESE</u>

a. **Diru laguntza eskabidea**. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, aplikazio informatiko beraz, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Enpresatzat hartzeko deklarazioa, 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako.

b. **Dokumentazio administratiboa**

- Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
- IFKaren kopia.
- Ahalduntzeko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
- Eskrituraren, estatuen edo eratzeko ekitaldiaren kopia.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.
- Enpresen kasuan, enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko modukoak badira, 651/2014 Erregelamenduaren I. Eranskinaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, horrelakotzat jotzeko behar diren dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:
  - ✓ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresak duen langile kopuruari buruzko informazioa azalduko duena.
  - ✓ Urteko negozioen bolumenaren edo urteko balantze orokorraren egiaztagiria.

**c. Dokumentazio teknikoa**

- **Bezeroaren** ziurtagiria, kontratuaren behin betiko esleipena erakunde eskatzailearen aldeko izan dela egiaztatzen duena.
- Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazio berriaren proiektuaz deskripziozko memoria tekniko-ekonomikoa, eta bertan proiektuaren hasiera eta amaiera egunak adieraziko da. Era berean, instalazioaren kokalekua UTM (X,Y) koordenatu sistemaren bidez adierazi beharko da.

  Ezinbestekoa da memoria horretan honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala edo kalkulua; kalkulatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Beharrezkoa da eskatzen den gehieneko bero potentzia zehaztea, eta hala badagokio, gehieneko hotz potentzia.

  Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero, eta aukera izanez gero, hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztu edo kalkulatuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari aurreikusten zaion ekarpen espezifikoa. Diru laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.
- Energia sortzeko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (**fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia**).
- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Proiektuaren lehen orrialdearen kopia zigilatua, instalazioaren bero, eta aukera izanez gero, hotz potentzia izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.
- ESE onuradunaren langile propioen eskulana, proposatzen den energia sistema berriari loturik, ESEk emango duen ziurtagiriaz abalatua, proiektuan arituko diren langileen ezaugarriak zehaztasunez adieraziz: parte hartuko duen langile bakoitzaren kategoria, jardunaldiko orduak eta orduko kostua.
- Diru laguntzaren eskatzailearen eta **bezeroaren** artean sinatutako kontratuaren kopia, energia zerbitzuak emateari begira. Bertan, besteak beste, hauxe azaldu eta zehaztu beharko da: inbertsioak eta itzulkina edo erretornua **bezeroari**, eta honengan eragina prezioen murrizketaren ondorioz, eskatzaileak EEEren aldetik jasoko duen diru laguntza dela eta. Horretaz gain, **bezero** kontratatzailearekiko betebeharraz, energia zerbitzu enpresen nahitaezko inbertsioen eta borondatezko inbertsioen arteko bereizi beharra dago.

- Aurreko paragrafoan aipatutako kontratu horretan espresuki jasotzen ez bada **bezeroari** zerbitzuen prezioen murrizketa, ESEk EEEren aldetik jasoko duen diru laguntzaren ondorioz, alde biek, ESEk eta bezeroak, izenpetuko duten deklarazio bat (**kontratuaren adenda**) aurkeztu beharko da, energia zerbitzuaren kostuaren murrizketa adieraziz, eta haren gutxieneko kantitatea izango da EEEk ESEri emango dion diru laguntza ekonomikoarena.

**Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira.**

EEEk diru laguntza eskaera behar bezala aztertzeko, beharrezkotzat jotzen dituen informazio eta dokumentu osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari.

## 9. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira. Eskabidea akastuna izanez gero, eta konpondu beharko balitz, aurkezpen datatzat **7. oinarrian** azaldutakoa hartuko da.

EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta modu elektronikoan (**7. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez) helaraziko dio eskatzaileari jakinarazpena sei (6) hilabeteko gehieneko epean, diru laguntza eskaera, osoa eta zuzena, aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, eskatzaileek ulertu beharko dute beren diru laguntza eskabidea onartua izan dela, 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan xedatzen den bezala.

Ebazpenean honako hau azalduko da: (i) diru laguntzaren xedea den jarduera, (ii) haren zenbatekoa (kantitate gordina, onuradunaren izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk eta (iv) eskabideari ezezkoa emanez gero, haren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluarekin bat etorriz; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean **29/1998 Legea**).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, diru laguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorriz (LGEen 19.4 artikulua eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorriz, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean **19/2013 Legea**) eta RGSa, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEk bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren diru laguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

## 10. Diru laguntzak ordaintzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionalak emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso.

Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko diru laguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean. Onuradunek diru laguntzen itzulketen betebeharren

ordainketak eginak dituztela kontuan hartzeko, hauxe izango da irizpidea: diru laguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatean epealdi betearazlean diru laguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezartzea edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrak ez ditu kontuan hartu. Era berean, onuradunek diru laguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela kontuan hartuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (RGSen 21. artikulua).

Aurkeztuko den proiektua edo azterlana bukatu ondoren, diru laguntza eskabidean azaldutakoarekin bat etorriz, EEEk emango duen diru laguntzaren ordainketa, onuradunak horretarako adierazitako kontu korrontean egingo da. Hori egin aurretik, justifikatu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagunduko jarduerak eta egindako gastuak egiaztatzeko.

Diruz lagunduko den jardueraren amaierari lotutako dokumentuen justifikazioa aplikazio informatika baten bidez egingo da, hasieran diru laguntza eskabidea bideratzeari begira erabiliko den aplikazio bera, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoen kasuan.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzan ordainketak eginak daudela adierazten dituzten dokumentuak, Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkienak izan ezik, era automatikoan eta ofizioz egiaztatuko ditu EEEk. Hala ere, onuradunak espreski uko egin ahalko dio onarpen inplizito horri; horrela eginez gero, kasuan kasu eskatzen zaion egiaztagiria edo dokumentua aurkeztu beharko du; hori guztia, 39/2015 Legaren 28. artikuluaren 2. paragrafoaren arabera.

Ordainketa eskaria egiteko, justifikatu beharreko jarduera mota bakoitzerako, argia, espezifikoa eta gaurkotua izan behar den honako dokumentazioa formalizatu eta aurkeztu beharko da:

**Pertsona fisikoak**

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

   - Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzeko ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
   - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.

c. **Dokumentazio teknikoa:**

   - Egindako guztizko inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean data dutenak. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

     Proiekturen batek bost (5) faktura baino gehiago jaulkitzea eskatuz gero, faktura horiekin batera, fakturen zerrenda zehatza den laburpen koadro bat aurkeztu beharko da, eta bertan, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga oinarria azaldu behar dira.

     Proiekturen batek obra-ziurtapenari lotutako fakturak jaulkitzea eskatuz gero, honako hau aurkeztu beharko da: 1) jaulkitako faktura-ziurtapen guztiak, 2) jaulkitako faktura-ziurtapen bakoitzari dagokion ziurtapen laburpen guztiak, eta 3) jaulkitako ziurtapen

bakoitzarekin bat etorritako kontu-sail burutuen bilakaeraren zehaztasun guztiak (laburpena eta faktura).

- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Instalazio Termikoaren Ziurtagiria. Erregistroa Industrian.
- Diru laguntza jasotako energia jardueraren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera gauzatu baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.

<u>Autonomoak</u>

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

   - Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzeko ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
   - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.

c. **Dokumentazio teknikoa:**

   - Egindako inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, honako data hauen artean: Laguntza programa honen diru laguntza eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik 2020ko abenduaren 31ra. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

     Proiekturen batek bost (5) faktura baino gehiago jaulkitzea eskatuz gero, faktura horiekin batera, fakturen zerrenda zehatza den laburpen koadro bat aurkeztu beharko da, eta bertan, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga oinarria azaldu behar dira.

     Proiekturen batek obra-ziurtapenari lotutako fakturak jaulkitzea eskatuz gero, honako hau aurkeztu beharko da: 1) jaulkitako faktura-ziurtapen guztiak, 2) jaulkitako faktura-ziurtapen bakoitzari dagokion ziurtapen laburpen guztiak, eta 3) jaulkitako ziurtapen bakoitzarekin bat etorritako kontu-sail burutuen bilakaeraren zehaztasun guztiak (laburpena eta faktura).
   - Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
   - Instalazio Termikoaren Ziurtagiria. Erregistroa Industrian.

- Diru laguntza jasotako energia jardueraren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera gauzatu baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.

<u>Pertsona juridikoak</u>

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

   - Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzeko ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
   - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
   - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.

c. **Dokumentazio teknikoa:**

   - Egindako inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, honako data hauen artean: Laguntza programa honen diru laguntza eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik 2020ko abenduaren 31ra. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

     Proiekturen batek bost (5) faktura baino gehiago jaulkitzea eskatuz gero, faktura horiekin batera, fakturen zerrenda zehatza den laburpen koadro bat aurkeztu beharko da, eta bertan, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga oinarria azaldu behar dira.

     Proiekturen batek obra-ziurtapenari lotutako fakturak jaulkitzea eskatuz gero, honako hau aurkeztu beharko da: 1) jaulkitako faktura-ziurtapen guztiak, 2) jaulkitako faktura-ziurtapen bakoitzari dagokion ziurtapen laburpen guztiak, eta 3) jaulkitako ziurtapen bakoitzarekin bat etorritako kontu-sail burutuen bilakaeraren zehaztasun guztiak (laburpena eta faktura).
   - Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
   - Instalazio Termikoaren Ziurtagiria. Erregistroa Industrian.
   - Diru laguntza jasotako energia jardueraren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera gauzatu baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.

<u>Udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak</u>

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

- Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzeko ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.

c. **Dokumentazio teknikoa:**

- Egindako guztizko inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean data dutenak. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

  Proiekturen batek bost (5) faktura baino gehiago jaulkitzea eskatuz gero, faktura horiekin batera, fakturen zerrenda zehatza den laburpen koadro bat aurkeztu beharko da, eta bertan, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga oinarria azaldu behar dira.

  Proiekturen batek obra-ziurtapenari lotutako fakturak jaulkitzea eskatuz gero, honako hau aurkeztu beharko da: 1) jaulkitako faktura-ziurtapen guztiak, 2) jaulkitako faktura-ziurtapen bakoitzari dagokion ziurtapen laburpen guztiak, eta 3) jaulkitako ziurtapen bakoitzarekin bat etorritako kontu-sail burutuen bilakaeraren zehaztasun guztiak (laburpena eta faktura).
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Instalazio Termikoaren Ziurtagiria. Erregistroa Industrian.
- Diru laguntza jasotako energia jardueraren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera gauzatu baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.

<u>**Etxejabeen elkarteak**</u>

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

- Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzeko ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.

c. **Dokumentazio teknikoa:**

- Egindako guztizko inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean data dutenak, eta oinarri hauetako 2.1 atalean adierazten denez, onuraduna denak jaulki behar ditu.

  Proiekturen batek bost(5) faktura baino gehiago jaulkitzea eskatuz gero, faktura horiekin batera, fakturen zerrenda zehatza den laburpen koadro bat aurkeztu beharko da, eta bertan, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga oinarria azaldu behar dira.

  Proiekturen batek obra-ziurtapenari lotutako fakturak jaulkitzea eskatuz gero, honako hau aurkeztu beharko da: 1) jaulkitako faktura-ziurtapen guztiak, 2) jaulkitako faktura-ziurtapen bakoitzari dagokion ziurtapen laburpen guztiak, eta 3) jaulkitako ziurtapen bakoitzarekin bat etorritako kontu-sail burutuen bilakaeraren zehaztasun guztiak (laburpena eta faktura).
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Instalazio Termikoaren Ziurtagiria. Erregistroa Industrian.
- Diru laguntza jasotako energia jarduerаren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera gauzatu baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.

<u>**Energia Zerbitzu Enpresa – ESE**</u>

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

- Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzeko ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- EEEri era automatikoan egiaztatzeko baimena eman ez dioten diru laguntzaren eskatzaileak, Gizarte Segurantzan dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia justifikazioaren egunean.
- Diruz lagundutako jarduerаren amaiera onartzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria, kontratuan hitzartutakoaren arabera, bezeroak eta diru laguntzaren onuraduna den ESEk sinatua.

c. **Dokumentazio teknikoa:**

- Egindako inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, honako data hauen artean: Laguntza programa honen diru laguntza eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik 2020ko abenduaren 31ra. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

  Proiekturen batek bost (5) faktura baino gehiago jaulkitzea eskatuz gero, faktura horiekin batera, fakturen zerrenda zehatza den laburpen koadro bat aurkeztu beharko da, eta bertan, gutxienez, hornitzailea, data, faktura-zenbakia eta zerga oinarria azaldu behar dira.

  Proiekturen batek obra-ziurtapenari lotutako fakturak jaulkitzea eskatuz gero, honako hau aurkeztu beharko da: 1) jaulkitako faktura-ziurtapen guztiak, 2) jaulkitako faktura-ziurtapen bakoitzari dagokion ziurtapen laburpen guztiak, eta 3) jaulkitako ziurtapen bakoitzarekin bat etorritako kontu-sail burutuen bilakaeraren zehaztasun guztiak (laburpena eta faktura).
- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Diru laguntzaren onuraduna den ESEk emandako ziurtagiria, proposatzen den energia jarduerari lotuta eta parte hartze zuzena izango duen ESEko plantillako langile bakoitzaren kategoria, dedikazio orduak eta ordukako kostua azalduko dituena.
- Instalazio Termikoaren Ziurtagiria. Erregistroa Industrian.
- Diru laguntza jasotako energia jardueraren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera gauzatu baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.
- Memoria teknikoa, egindako jardueren eta aurreikusitako energia eta diru aurrezkien betetze mailaren justifikagarria. Horretaz gainera, egindako proba eta ikuskapen teknikoen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira.
- Egindako jardueren memoria ekonomikoa, egindako jarduerari lotutako gastuen eta inbertsioen sailkapen zehatza izango duena, honako hauek deskribatuko dituena: gastua, hartzekodun bakoitzaren identifikazioa, guztizko zenbatekoa eta proiektuari edo jarduerari dagokiona, faktura bakoitzaren eguna eta gerta litezkeen desbideratzen erreferentzia eta arrazoiak, onartutako aurrekontuaren aldean.

**Diru laguntzaren xedea den jarduera amaitu ondoren, eta beranduenez ere 2021ko urtarrilaren 15ean, ordaintzeko eskaera aurkeztu beharko da, EEEri bidaliz, posta elektronikoz, oinarri hauetako 7. atalean azaltzen den aplikazioaz, baita goraxeago adierazitako dokumentazioa ere**. Ordaintzeko eskaera eta dokumentazioaren aurkezpena ekitaldi bakarrean eta bere osotasunean egingo da onuradunaren edo bere legezko ordezkariaren aldetik. Hartara, ordaintzeko eskaera osatu gabe edo akastuna izango balitz, edo postaz zein aurrez aurre edo eskura aurkeztuz gero, hamar (10) egun baliodunekoepea emango litzaioke eskatzaileari zuzentzeko, zuzentzeko bidaliko zaion idazkiaren bidez jakinarazia, diru laguntzaren onuradunak horren berri emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

Goraxeago adierazten den dokumentazio justifikagarri hori guztia jasotzeko epea ez da inola ere luzatuko EEEren aldetik. Dokumentazio justifikagarri hori guztia dagokion epean aurkeztu ezean, itzularaziko zaio zenbatekoa eta LGSen ezartzen diren gainerako erantzukizun guztiak eskatzea ekarriko du.

Aipatutako dokumentazio hori guztia jaso ondoren, aztertzeari ekingo zaio, eta behar bezala izanez gero, diru laguntza ordaintzeko izapideari hasiera emango dio EEEk. Aurkeztutako dokumentazio justifikagarria aztertu eta gero, eta azken diru laguntzaren zenbatekoa hasieran emandakoa baino

txikiagoa izan behar dela egiaztatuz gero, diru laguntza aldez ezeztatzeko espediente bat abiarazteari ekingo zaio. Kontrara, honako egoeraren bat gertatuz gero:

- Eskatutako dokumentazio guztia ez da epearen barruan aurkezten.
- Energia instalazioa egin dela eta dagokion fakturazioa ez dira egiaztatzen 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean, eta enpresen kasuan, diru laguntza eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik 2020ko abenduaren 31ra.
- Oinarri hauetan eta/edo diru laguntzez diharduen legerian ezartzen diren baldintzaren bat ez da betetzen.

Goiko hiru kasuetakoren bat gertatuz gero, EEEk diru laguntza osorik ezeztatzeko espedienteari ekingo dio.

## 11. Inbertsioen egiaztatzea

Diru laguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazi ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak inbertsioen egiaztatze "in situ" egin ahal izango du, eta bertan instalazioari lotutako zenbait argazki adierazgarri egingo dira, diruz lagundu eta azaldutako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz eta oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen direla bermatzeko; baita espedientean ez legokeen eta beharrezkotzat joko duen dokumentazio guztia ere eskatu ahal izango da; betiere, diru laguntzen erabilera egoki egingo dela ziurtatu nahian.

Diru laguntza jasotako jardueraren inbertsioen egiaztatze "in situ" egingo zaien onuradunei aldez aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiteko betebeharra izango dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEEk onuradunari inbertsioen egiaztatze teknikoa edo ekonomikoa "in situ" egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, EEErekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun baliodunekoo epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatze "in situ" egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEk diru laguntzaren zenbatekoa errebokatzeko espedientea abiaraziko du.

Inbertsioen egiaztatze "in situ"n hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, kasuan-kasuan, EEEk diru laguntza aldez edo erabat errebokatzeko espedientea egingo du eta, hala badagokio, zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko luke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

## 12. Onuradunen betebeharrak

Deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek, ezinbestean, betebehar hauek izango dituzte:

a. LGSen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.2. artikuluan xedatutakoak.

b. Emandako diru laguntza onartzea. Diru laguntza programa honen arabera, diru laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio onuradunak, onartu egin duela ulertuko da, deialdia honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoen eta gainerakoen arabera.

c. Diru laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.

d. Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari ematea eskatu ahal dioten informazioa, laguntzen programa honen arabera emandako diru laguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginei jarraiki.

e. Helburu bera duen proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.

f. Garatuko den egitasmoei lotutako instalazioek indarrean dagoen legeria edota araudia bete beharko dute, eta haien osagaiek dagokion erakunde eskumendunaren homologazioa eduki beharko dute. Beraz, onuradunak onartzen du egitasmoak bete egingo duela aplikagarria izan dakiokeen legeriaren alderdi guztietatik: teknika, hirigintza eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta.

g. Instalazioa jabetzan izatea eta funtzionamendu egokian edukitzea bost (5) urteko gutxieneko epean, EEEk diru laguntza ematen edo ordaintzen duen egunetik kontatzen hasita. Salbuespena izango da diru laguntzaren onuraduna ESE bat denean, eta ESEren eta bezeroaren artean sinatuko duten kontratuaren ondorioz, bost (5) urteko epea igaro baino lehen, diru laguntza jasotako instalazioak eta/edo ekipoak bezeroari ematen zaizkionean.

   Kasu bereziren batean, aipatutako bost (5) urteko epea igaro aurretik, onuradunak diruz lagundutako instalazioak edota ekipoak hirugarren bati besterentzea erabakiz gero, saltzeko kontratu-agirian espresuki adierazi beharko du inbertsio hori EEEren 2020ko biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programaren diru laguntza jaso duela. Era berean, jabe berriak edo erosleak konpromisoa hartzen du diru laguntza eman zen helbururako erabiltzeko eta instalazioak funtzionamendu egokian edukitzeko EAEn, gutxienez, aipatutako epea bete arte. Horrela ez balitz, EEEk diru laguntza aldez edo osorik baliogabetzeko espedientea irekitzeari ekingo lioke, kasuan kasu.

   Nolanahi ere, besterentzea erabakiz gero, EEEri jakinarazi beharko lioke, diru laguntza jasotako instalazioak eta/edo ekipoak saltzeko kontratu-agiria sinatzen den egunetik hilabeteko epean gehienez ere.

   Aipatutako besterentzearen harira, erosleak agindutakoa behar bezala betetzen ez badu, emandako diru laguntza itzultzeko betebeharra duela konpromisoa hartzen du.

h. EEEk hala eskatzen baldin dio, onuradunak konpromisoa hartzen du lortutako emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazio lanak egiteko ere, bost (5) urteko epean, EEEk diru laguntza ematen duen egunetik kontatzen hasita.

i. Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektiboa zein subjektiboaren berri ematea EEEri.

j. Eman daitekeen diru laguntza ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, EEEk eska diezaiokeen informazio guztia emango du onuradunak.

k. Jarraian, EEE Energiaren Euskal Erakundearen informazio eta komunikazio betekizunak edo baldintzak behar bezala betetzeko jarraibideak zehazten dira, diru laguntza publikoa jasotzeari lotutako betebeharrak era efektiboan bete ditzaten diru laguntzen onuradunek.

   Egingo diren informazio eta komunikazioaren inguruko neurri eta jarduera guztiek eskatzen dute onuradunaren ezagutza, Energiaren Euskal Erakundearen laguntzari dagokionez. Horretarako:

   - Paperean, webgunean, App-en edo ikus-entzunezkoan egingo den jarduera orok eduki beharko du berariazko aipamen edo erreferentzia hau: proiektu hau diruz lagundu da Energiaren Euskal Erakundearen laguntza programaren barruan. Euskarri horietan Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa jarriko da. Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa eskuragarri izango da EEEren webgunean, formatu bektorialean eta gaurkotuen egongo den azken bertsioan.
   - Hedabideetan diruz lagundutako proiektua sustatzeko komunikazio jarduera guztiek eduki beharko dute berariazko aipamen edo erreferentzia bat, proiektu horrek Energiaren Euskal Erakundearen diru laguntza jaso duela nabarmentzeko eta komunikazio jarduera horren berri emango zaio EEEri.

- Diruz lagundutako instalazioan Energiaren Euskal Erakundeak emango duen kartel adierazgarri bat jarriko da, leku nabarmen batean eta ikusgai.

l. Gauzatutako eta diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa EEEren eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.

## 13. Ez betetzea eta dirua itzultzea

Jasotako diru laguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legezko interesari %25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kantitate bat esaten ez badu), diru laguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, LGSen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa aldez edo partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako LGSen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio irizpideak kontuan hartuko dira.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedientea ireki, eta diru laguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko litzaioke EEEri, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Dekretu Legegilean xedatutakoari jarraiki eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. idazpurua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, diru laguntza aldez edo osorik itzularazteko, EEEko zuzendari nagusiak du.

## 14. Informazio klausula eskatzaileei

| DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA<br>(Datuak Babesteari buruzko 2016/679 EB Erregelamendua betez) | |
|---|---|
| **Tratamenduaren erantzulea** | ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE)<br>IFZ: Q5150001E<br>Helbidea: Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia)<br>Tel.: 94.403.56.00<br>kontaktua DPD:dpd@eve.eus |
| **Helburua** | - Zure laguntza eskaera egikaritu eta kudeatzea, eta, bidezko bada, zure emakidaren ondorioz ezartzen den harremana egikaritu eta kontrolatzea.<br>- EEErekin harremanetan jartzeko hautatutako hizkuntzari dagokionez, betetzea derrigorrezkoa bada ere, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika eta estrategien esparruan erabiliko da datua, eta monitorizazioari eta estatistikari begira baino ez da baliatuko. |
| **Tratamenduaren legitimazioa eta kontserbazioa** | Interesdunaren baimena, eskaera aurkeztearekin batera adierazia.<br>Informazioaren kontserbazioa: eskaera aztertzeko epearen eta aplikatu behar zaizkion lege-epeen barruan. Laguntza ematen bada, datuak emakida-espedientean bilduko dira, eta emakida indarrean dagoen bitartean kontserbatuko dira, eta, ondoren, aplikatu beharreko lege-epeen barruan. |
| **Lagapenen hartzaileak** | Alor horretan eskumenekoak diren kontroleko erakunde eta agintari autonomiko edo lokalak. |

<table>
<tr><td colspan="2">DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA<br>(Datuak Babesteari buruzko 2016/679 EB Erregelamendua betez)</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Interesdunen eskubideak</td><td>Datuetan sartzeko, datuak zuzendu, ezereztu eta mugatzeko, eramangarritasuneko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzu EEEko DPD atalari “datuak babesteko eskubideak baliatzeari” buruzko idazkia bidaliz, dirulaguntzei buruzko araudian ezarritakoarekin bat etor daitekeen neurrian.</td></tr>
<tr><td>Emandako baimena kentzeko eskubidea dute interesdunek.</td></tr>
<tr><td>Interesdunek Kontrol Agintarien aurrean erreklamatzeko (www.avpd.eus Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta www.agpd.es Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) eskubidea dute.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Onuradunak konpromisoa hartzen du bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketarekin, eta, bidezko bada, ondorengo egikaritzapenarekin, lotutako edozein pertsona fisiko edo juridikoren edozein datu pertsonal EEEri eman aurretik, dagokion pertsona fisiko edo juridiko horri aldez aurretik adierazitakoaren berri emateko eta EEEri datu pertsonalak modu egokian lagatzeko aplikagarriak diren gainerako betekizunak betetzeko.</td></tr>
</table>

## 15. Azken xedapenak

**1.** EEEren erabakiak izaera administratiboa du, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie EEEk kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

**2.** 2020ko EEEren biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntza programa honek emandako diru laguntzari esker egiten diren instalazioen irudien erabilera egiteko eskubidea du EEEk.

**3.** Onuradunak, eskabidearen kudeaketan, aurkeztuko duen dokumentazioan edo informazioan egon daitezkeen akatsen edo errakuntzen erantzukizuna harena baino ez da izango, baldin eta eragiten badie zuzenean diru laguntza eskaera aintzat hartu edo ez hartzeari eta/edo EEEk eman beharko duen diru laguntzaren kantitateari. Horrexegatik, hain zuzen ere, diru laguntza emateko ebazpenean kontuan hartzen den gastuan egon litezkeen aldaketak, gastu efektiboaren gehikuntzan, ez dira inola ere berrikusiko, zenbatekoa areagotzeari begira.

**4.** Oinarri hauetan azaltzen diren diru laguntzei honako honetan xedatutakoa aplikatuko zaie:

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari buruzko Arautegia onartzen duena.
- 1/1997Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko UE 651/2014 Erregelamendua, zenbait diru laguntza mota barne-merkatuarekin bateragarriak jotzen dituena, Itunaren (DOUE 2014 L 187) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena.
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.
- Aplikagarri izan daitekeen tokiko, autonomi erkidegoko, estatuko edo Europako beste edozein araudi.